

NAZIO-ARTEKO UNEA

Frei'ren esanak

RIKARDO ARBEGI

Amerikanoak Santo Domingo'n egin dituzten eta egiten ari diranen etsairik aundienak Ego Amerika'n Chile, Uruguay, Meji- co, Venezuela ta Peru izan dira, Johnson lendakariak bere ordez- ko bat bidali zuen nazio oietako urri-buruetara. Ordezktari ori, Averell Harriman izan da. Chile'ra eldu zanean aste ez zuen go- gortasuna arkitu zuen amerikanoen joeraren aurka Frei lenda- kariarengan. Dakigunez Frei Ego Amerika'ko lenengo kristau de- mokrata lendakaria da, baiñan ez Europa'ko kristau demokratek bezela askotaz ere ezkerlagoa baizik.

Harriman jaunak esaten zion Frei jaunari amerikanoak bear- tuta arkitu zirela Santo Domingo'n parte artzeko, bestela komu- nisten menpean eroriko zelako, Ara Frei jaunak emandako eran- tzunaren zati bat:

"Zuk azkenean ezagutu duzu O.E.A.'k ez duela ezertarako ba- lio, gaur den bezela beñepein. Pozez entzuten dut ori, guk aspal- dian esaten baigenduen gaua bera. Baiñan zuek antolaketa ori militar ta ideologi tresna batean aldatzea proposaten duzute. Zuek O.E.A. interbenitzeko printzipioa onartzea nai duzute, O.E.A.'k ontzat artzea interbenizioa komunisten egiteen kontra joaterakoan.


Baiñan orren truke ez duzute interbenziolorik militarrik Konsti- tuzio baten kontra altxaturik diktadura ezartzeko dutenean. Are gelago, zuek diktadura ori onartzen duzute komunismoaren kon- tra baldin badijoia.

Interbenziolorik eza aulen arma bat da indartsuen kontrakoa. Ez zuek ta ez erusitarrak ez duzute printzipio orren bearrik ato- mita bonba duzutelako. Gaur egunean O.E.A.'k ez du indarrik, "Santo Domingo'n diktadura ezarri ez dedin" amerikano guztien militar indar bat bialtzea botatu duten amaiua nazioen artean, botu emalite asko diktadura besterik ez zirelako. Jakina diktadura oiek komunismoaren kontrakoa ziran baiñan orrek ez du garran- tziarik. Defenditu dezagun benetako demokrazia, baiñan ez Cuba' ren gainean itzeigiten dugunean bakarrik. Defenditu dezagun al- derdi guztietan, arkitzen ez dugun nazio guztietan".

Berez itz oiek komentariolorik ez luteke bear. Naliko argiak dira. Bakar bakarrik gertakizun batzuek gogoratu ditzaugun.

Amerikanoen alde O.E.A.'ren (Amerika'ko Estaduen Antolake- ta) barruan botua eman zutenean artean ez ditugu Ego Amerika'ko erri aurreratuenak eta aundienak arkitu, esta ere nola alabaiteko demokrazia beñepein duten nazioak. Aundien artean Brasil bakar- rik atera zen amerikanoen alde baiñan danak dakigu Brasil'go buru militar bat dela ta benetako diktadura batean arkitzen dela Brasil.

Amerikanoak alegin guztiak egin ondorenean berrogei ta ama- lau komunista besterik ez dituzte arkitu Santo Domingo'n. Ta oiek menperatzeko 30.000 soldadu baino gelgo bidali dituzte. Penisa ko- munista bakoitzak 500 soldadu amerikanoen balioa duela gutrie- nean orlik igartzien danen. Nai esta egin ditote amerikanoak komu- nistek alabantzarik aundien.



Ipar ameriketan oposizioak buru ba-du

Lenengo aldir Batzerra iritxi za- netik, M. Robert Kennedy altxatu da Etxe-Zuriak daraman politik- aren aurka, bai Vietnamen bai Santo Domingon. Bi bider azaldu du bere iritzia Kongresu bertan eta «New York Times»en egindako alkar-iz- keta batean.

Egia da Jonhsonek aurretik ai- tzaki bat ezkeini diola, bere anala zanaren politikaren kontra mintza- tuaz, dela egun batzuk. Baiñan ez degu uzten Robert Kennedy'ren postura «familiar interesak» gorde- tzearen artua izan daenik, ots, pos- tura personala soilik daenik. Egu- netik egunera Jonshonen politikare- kiko kontrarioak ugaltzen ari dira batez ere Ipar-Amerikako gizarte urdurien artean. Berreun artzai eta apalzek izkribu batean eskatu berri dute artu-emanak egin dize- la Santo Domingo eta Vietnamen. Bezte berreun intelektual eta irak- kasiek agiri gogor bat eman dute politika ori kondenatuaz. Eta batez ere ikastetxe Nagusietan, irakasle eta ikasleen artean oposizioa zabal- tzen ari da egunetik egunera.

errik Ipar-Ameriketako estaturik li- beralena. Eta geroko Lendakari-gai bezela ere, Jonshonen aurrean ko- katirik, irabazi bezterik ez du egin- go.

Oraingo politika jokaerakin akort ez daudenak badakite nora jo emen- dik aurrera. Buru bat izanik gor- putza aunditzen joanen da seguru azko.

Egia da oraindik Jonshonek erria- ren maioría berekin duela. Egia da ere Ipar-Ameriketako elektzioetan, bere izan dela boto ugariakin au- tatua izan den Lendakaria. Ortarako abilitade izugarriakin presentatu zuan bere kontrarioa Goldwater, gerra-zale amorratu bat bezela. Orain berriz, inork ez du Goldwa- ter baino gogo obeagokin bere po- litika onartzen eta ontzat ematen. Zeinek zeinheri ostu dio maskara!

Argienak asiak dira joku onetaz konturatzeko. Erria ere esnatuko da noizbait. Bitartean eman diogun gu- re konfiantza osoa, Robert Kenne- dyren inguruan indarra artzen ari den oposizioari.

M. LASA

Konformismoa lege daen erri ba- tean gertakizun auk señalagarriak dira. Emendik aurrera esan dezake- gu oposizioak gorputza artu duela, eta gorputza ezik, burua ere arkitu duela Robert Kennedy'gan.

New York'eko Senadore bezela ez dauka ezer gaitzeko arrikkurik postura berri onetan, ez baita alpe-

Humanismu berri baten billa De Gaulle'n politika bideak

Orain arte sartaldeko gobernu guziak ekonomia ba- karrik izan dute beren oinarri, ta ekonomia ori zainzeta izan da gobernu gizonen eginbearra. Au ez da arritzeko- koa azkeneko gerra ondoren Europako ekonomia nola desegina gelditu zan ikusita. Baiñan ekonomia orren ber- piztea bildur baten menpean izan da. Beste ekonomia sistima baten indarriari aurka egiteko ekonomia bat besterik ez da izan. Naiz gerra bukatua izan, gerra den- borako ekonomia izan da: nazioak gure ekonomia sist- ma ez daa beste ekonomia sistima batean erori ez ditezten. Ta jokaera onek geio ta geiago urrutiratu ditu munduan gaur diran bi ekonomia sistimak.

BI SISTIMEN ELBURU BERDINAK

Urrutiratze au gero ta gogorragoa dala ikusi du De Gaulle generalak, ta ekonomia utsa alde batera utzita politika bideari ekin dio. Ikusi du bi ekonomia sistimak gizona dutila elburu. Ta ikusi du gizonak gerra ondore ontan lotu duana ona dala. Baiñan bildur da urrutiratze ortan gerra berri bat piztera etorriko ez diran.

De Gaulle'k humanismu berri bat sortu nai du. Bata besteaer aurka diran bi etsaieri gauz bat berdiña dute- la adierazi nai dio: gizonaren ona. Bieiri adierazi nai dio ekonomia gizonarentzat dala, ekonomia gizonaren onerako dala, ta ez gizona ekonomiaerantzako.

FRANTZIAREN EGINBEARRA

Orregatik aurkako diran bi mundu auen arte zubi bat bezela izateko Frantzi aundi ta indartsu bat jaso nai du.

Frantzi aundi orren eginbearra izango da danekin artuemanak izan eta bi sistima oien ezberdintasunak leguntzen alegindu.

Ortarako De Gaulle'k eman dituan pausak ez dira nazio guztientzat ondo ikusiak izango: Trina ezagutuaz berarekin artuemanak sortu, Errusiarekin batean eko- nomi erasoetan erabakiak artu, Vietnam ta Santo Do- mingo'ko gerretan Ipar-Aberikari ezetzkoa erantzun, t. a.

FRANTZESAK DE GAULLE BETI

Azkeneko ibillaldi ontan au guzia esan dio De Gaulle'k frantzeseri beste itz batzuetan. Esan du Fran- tziak eginbear bat daukala: munduari bide berri bat erakutsi. Baiñan ortarako Frantzi aundi ta sendo bat egin bear dugu. Nor da Frantzia bideoietan zuzendu lezakena? Nik uste dut oraindik De Gaulle dala.

Baiñan au ez da batek bakarrik esan lezakena, erri osoak baizik. Ta orixe egingo dute Frantzesak datorren udazkenean.

IMANOL LARREA

ARAGI, LUKAIIKA ETA ODOLKI ONAK JAN NAI BA DITUZU EROSI ORMAIZTEGIKO MURUA'TAR PAULO'REN ARAGI- TEGIAN

ARANTXA Oiñetakoak

Emakumeentzat bakarrik Oiñetarako bereziak «OINAK SENDATZEKOAK»

Plaza de los Luises, 2 (Esquina Zabaleta)

SAN SEBASTIAN



EUROMAR Restauranta

— ZARAUZ —

sukalde aukerako estalietarako aurrenengoa

Urrutizkiña: 85240

ZARAUZ